

# Karkara

*karkara.eus*

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2016eko urtarrilaren 29a · 369. zenbakia. 26. urtea



## Gaztelaniaz, ia laurdenak

Aiako kaleetako eta leku publikoetako ahozko hizkuntza neurtu du Joxe Anjel Aldai aiarrak, eta %64,24ak hitz egiten du euskaraz.

**11**

**Adarretatik helduta**  
Jokin Salsamendi

**19**

**Sokari tiraka**  
Zuloaga eta Beldarrain

**22**

**Elkarrizketa**  
Ibai Jauregi

**33**

**Udalaren Txokoa**  
Frontoia



# oriotar mundialen eskola



**IPI Zaragueta**  
Herri Eskola **Orto**  
dugu atsegin

**Matrikula epea**  
Urtarrilaren 25etik otsailaren 5era  
**Ate irekiak**  
Urtarrilaren 16an 10:30tik 13:00etara  
Aurkezpena: 10:30ean



369

## Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

## Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.eus

## Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

## Erredaktore burua

Miriam Garcia

## Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,  
Olatz Artola,  
Lore Berasaluze,  
Iñigo Exposito,  
Jon Garate,  
Elizabete Manterola  
eta Rikardo Uzkudun

## Publizitatea

Idurre Telleria

## Ale honetako

## kolaboratzaileak

Olatz Beldarrain,  
Iñigo Fernandez,  
Ana G. De Txabbarri,  
Eli Huegun,  
Mikel Iruretagoiena,  
Iñaki Iturain,  
Zigor Lizaso,  
Jokin Salsamendi,  
Olatz Zuloaga.

## Diseinua

Saioa Perona

## Banatzaileak

Rodolfo Jimenez,  
Leire Bravo (Orioko)  
Eli Irureta (Aia)

## Inprimategia

Gertu Koop. E. (Orioko)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako  
esanen edota iritzien erantzun-  
kizunik. KARKARAN argitaratu-  
takoa berremán daiteke,  
osorik edo zatika, baldin eta  
iturria aipatzen bada.

TOKIKOM



## LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala

Gipuzkoako  
Foru Aldundia

Uso ugari zeruan, hegan. MIKEL IRURETAGOIENA

## HASI BERTSOTAN

MIKEL IRURETAGOIENA (DOINUA: SORTERRIKO KOPLAK, MIKEL LABOA)

Gaia:  
Udazkeneko larunbat goiz batean

1

Europatik Afrikara  
urtero iristen gara  
Euskal Herritik pasatzekoan  
hego-haizerik ez bada.

3

Sartu bide okerrean,  
eskopetak haserrean,  
ez al zegoen herri honetan  
su-etena indarrean?

2

Zuhaitz artean gordeta  
guri begira eskopeta,  
azkar goaz gu ez bukatzeko  
denok berunez beteta.

4

Hegan puestorik puestora  
eta ezin egin gora,  
berriz etxera onik joatea  
miraria izango da.

6

Berriro hona bisitan  
ez naiz etorriko bitan  
Euskal Herria bilakatu da  
usoentzat Afganistan.

5

Salbaturik azkenean  
jarraitu beharko hegan,  
gaurkoan ez dut bukatu David  
De Jorgeren sabelean.

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara  
688 859 682 (Idurre)  
publizitatea@karkara.com

karkara.eus

## LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala

Gipuzkoako  
Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

LAGUNTZAILEA BAZARA

JASO  
KARKARAREN  
OPARIA

EGIN ZAZU LAGUNTZAILLE

ETA  
OPARITU  
KARKARA



KARKARAKO ERREDAKZIOAN GAUDE POLTSAK BANATZEKO ZAIN  
EUSKO GUDARIEN KALEAN, KULTUR ETXEKO 1GO SOLAIRUAN



## Kultura sailetik eskerrak gabonetako ekitaldietan laguntza eman duten talde eta boluntario guztiei

Orioko Udaleko kultura sailetik berriz ere herritarrak eskertu behar ditugu, Gabonetako hainbat ekitalditan ez bakarrik parte hartu dutelako baizik eta lan guztia beren kargu hartu dutelako gainontzeko herritarrok gozatu ahal izateko.

Lera taldeari, Otxoteari, Talai Mendiri, Musika Eskolari, Arkuperi, Mandalara taldeari eta hainbat boluntarioei, guztiei berriz ere eskerrik asko, nahiz eta batzuetan lana neketsua izan zuen ilusioarekin dena errazten duzuelako.

Orain Balea Eguna dator, oriotar guztiei deitzen dizuegu bertan parte hartzera eta denon artean, denontzako, egin dezagun festa eder bat!

■ **Orioko kultura saila**

## Bazkide izateko aukera

Jakinarazi nahi dugu, San Juan Elizpe Elkarteak, bazkide izateko bi plaza bakante daudela. Norbait interesaturik egongo balitz, jar dadila harremanetan elkarteko batzordearekin.

■ **San Juan Elizpe Elkartea**

## Eskertza

San Juan Elizpe Elkartea osatzen dugun guztiok, gogora ekarri nahi ditugu, 2015. urtean hil diren Luis Atxega Or-

## Okerrak zuzentzen

KARKARAREN 368an, 2015eko abenduko zenbakian, Karkara.eus atalean, akatsa egin genuen.

San Pedro Jaietan Tiburtzio eta Joxemari Etxeberria omendu zituztela eta, pilotaren inguruko datu bat aipatu genuen albistearen amaieran: Oliden eta Orbegozo bikoteak Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuela, alegia.

Hori zuzena da; baina Oliden aiarra eta Orbegozo oriotarra zirela jarri genuen, eta hori ez da horrela, alderantziz baizik. Oliden oriotarra da eta Orbegozo aiarra. Hortaz, bakarmena eskatu nahi dugu egindako akatsagatik.

begozo eta Segundo Manterola Aldaz, gure ohorezko bazkideak. Horregatik, otsailaren 14ean, haien omenez, meza izango da Orioko elizan, 12:00etan.

■ **San Juan Elizpe Elkartea**

## Orioko PNVren estiloaz

Jada badaramatza PNVk hilabete batzuk gobernuan, eta bere lehentasunak zein diren argi utzi ez dituzten arren, oso garbi utzi digute zer den interesatzen ez zaiena. Hondakinen gaia esaterako, abenduko plenora sanpedroetatik desagertua zegoen balakoiko birtziklapen tasaren kartela eman genien, jarriko zutela esan eta badirudi berriro ere ahaztu edo galdu zaiela. Gogora ekarri nahi dugu aurreko legealdian

berak ere parte ziren *hondakinen mahaia* aho batez onartutako erabakita-ko neurri bat izan zela.

Larriagoa da hondakinen mahaia oraindik deitu ez izana, bai Orain eta bai EH Bilduk behin baino gehiagotan eskatu arren ez digute kasurik egin. Dudarik ez dago ez dutela honen inguruan inongo kezkarik. Gogoratu nahi dugu aurreko legealdian guztiok hartu genuela %65eko birtziklapen mailara iristeko konpromisoa, oraindik oso urrun gaude eta landu beharreko gaia da.

Bestetik Plan Orokorrari dagokionez, aspaldi azaldu genien mankomunitateko teknikariekin hitzordua jartzeko eskaria, Aizperroko Industria-guneaz eta etorkizunari begira Orioko garapen ekonomikoa behar den moduan lantzeko adituekin biltzea beharrezkoa ikusten dugu, eta mankomunitateak baditu horretarako teknikari eta baliabide aproposak. Oraindik zain gaude...

Gu lanerako prest eta gogoz gaude, baita elkarlanerako ere, zintzotasuna eta errespetua besterik ez dugu eskatzen. ■ **Orioko EH Bildu**

## Santio Jaiak antolatzeko bilera irekia erretagian

Santioko Jai batzordeak bilera irekia antolatu du otsailaren 12an, guztion artean santioak antolatzeko. Bileraren Portu erretagian izango da, gaueko 22:00etan. Animatu eta etorri bilerara!

■ **SANTIO JAI BATZORDEA**

## ZORIOTXARRAK!

### Mendibeltz zelaiko erabiltzaileei

Arritan eman dizkiegu zoriotxarrak espazioaren bat txukuntzarentzen ez dutenei. Eta oraingoa ere horrela izango da. Mendibeltz zelaiko harmailak zikin-zikin eginda gelditzen baitira partiduen ostean.

Klubak adierazi duenez, onartezina da beren etxea horren zikin egotea. Hortaz, zoriotxarrak Mendibeltz narrats uzten duten horientzat, ea aurrerantzean garbi uzten duten.

## HILDAKOAK

- Mila Lizaso Manterola, Orion, urtarrilaren 13an. 57 urte.
- Eulali Esnal San Sebastian, Orion, urtarrilaren 7an. 87 urte.
- Felipe Vallejo Duran, Orion, urtarrilaren 4an. 53 urte.
- Nicolas Tamayo Paquico, Orion, abenduaren 27an. 73 urte.
- Patxita Peña Manterola, Orion, abenduaren 19an. 88 urte.
- Felisa Arriola Zubizarreta, Orion, abenduaren 16an. 83 urte.
- Ramon Sarasua Genova, Orion, abenduaren 16an. 83 urte.

## JAIOTAKOAK

- Alex Arostegi Uranga, Orion, urtarrilaren 16an.
- Ibai Durandegi Delgado, Orion, urtarrilaren 14an.
- Oihan Garcia Gozategi, Orion, abenduaren 9an.

Eskela edo urteurreneko gogoan-garria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

**943 83 15 27**





Eragileekin egindako bileretako bat, elkarlana sustatzeko. KARKARA



Gabonetan plazara irten ginen. KARKARA



Karkarako laguntzaileei oparitu diegun poltsa. KARKARA

# Amo asko eta ahoan bilorik ez

“2016an KARKARA indartu nahi dugu, edukien etengabeko jarioa izan eta iritsi ezin garen tokietara heldu”

**G**osea ez ezik, gula ere akabatzen dugu Gabonetan gosea zer den ere ez dakigunok. Bapojaten dugu, prezioen gehiegikeria gutxi ez eta gehiegizko janka izaten da dieta. Tripa betebete eginda, urte berria asmoz betetzen dugu.

Urte berriarekin, asmo berriak. Urtez urte birtziklatzen direnak, eskatzerako ziurrenik beteko ez ditugula dakigunak. Erretzeari uztea; nahiz eta urte zaharreko parrandan urte berria hasi, 00:00etan, erre egiten dugu. Garbiago jatea; eta Gabonetako betekada pasa orduko, lagun eta familiarekin mahai bueltan jan-edanean arituko gara, berriz. Parranda gutxiago egitea; eta urtarrilean Donostiara San Sebastian Eguna eta otsailean Tolosako inauterietara joango gara, promesa haustera. Asmoak, asmo.

Asmo: iz. Zerbait egiteko burutapen edo proiektua. Asmoa izatea da hori. Asmoa aitzakia ere bada, bestalde. Eta, ezin uka, asmo eske ibiltzen garela, sarritan, urte berriko asmoa bete ez ditzagun. Justifikazio bila azalpenak emateko. Onartu, guk geuk onartu behar dugunean/garenean.

Karkariñook ere baditugu asmo berri zaharrak. Baina, Karkariño maskararen atzean gordetzen garen moduan ezkutatuko ditugu asmo horiek, justifikatzen ibili behar ez izateko. KARKARAK, ordea, baditu asmoak eta ahoan bilorik gabe esango ditugu.

KARKARAK herritarrengana gehiago gerturatu nahi du, gertu-gertukoa izan, eta, KARKARA herritarrekin batera osatu. Gertatua jarri zuentzat, baina baita zuekin ere. Hasi berri dugun 2016an KARKARA indartu nahi dugu, edukien etengabeko jarioa izan eta iritsi ez garen tokietara heldu. Esan bezala, zuentzat eta zuekin.



# Zer musika entzuten duzu? Herriko taldeak jarraitzen dituzu?



“Euskal talde asko dira gustatzen zaizkidanak”

**D**enetik entzuten dut, egia esan, baina bereziki euskal taldeak dira jarraitzen ditudanak.

Euskal talde asko dira gustatzen zaizkidanak. Adibidez Hesian, Vendetta, ETS, Esne Beltza, Skakeitan...

Eta euskal taldeen artean ere badira herriko taldeak. Orioko taldeak ere jarraitzen ditut, nola ez ba! Gozategi, Giranice, Bi Bala, Benito Lertxundi, Olatz Zugasti...

Beti pentsatu izan dut herriko taldeei bultzadaxo bat eman behar zaiela, baita Euskal Herriko musika taldeei ere. Ni Uhats taldeko abeslarietako bat naiz eta herriko jendearen babesa ezinbestekoa iruditzen zait.

**Mirene Elizondo**

Uhats taldeko eta Salatxo abesbatzako kidea



“Herri txikia izanik, musika sorkuntza nahiko oparoa du”

**E**mozionatzen nauen musika bitlatzen dut normalean, edozein izanda ere estiloa eta jatorria.

Azken deskubrimentua *Caspianen* azken diskoa izan da, *Dust and Disquiet*.

Nire fonotekaren zati handiena ez da euskalduna. Ez euskal musikak kalitate falta daukalako, munduko produkzioarekin alderatuz txikia delako, baizik. Euskal Herrian talde bikainak ditugu, baina hedabideeta hedabideetan beti talde berdinak entzuten eta aipatzen dira, eta desberdinagoak direnei ez zaie aukerarik ematen.

Oriok, herri txikia izanagatik, musika sorkuntza nahiko oparoa du, estilo desberdinetakoa, gainera.

**Andoni Lertxundi**

Giranice taldeko musikaria



“Musika lanean eta etxean entzuten dut”

**E**uskal musika da gehien entzuten dudana, Benito Lertxundi eta Mikel Laboa, adibidez.

Lertxundiren jarraitzailea naiz, asko gustatzen zait. Gainera, erreperitorio zabala du. Disko asko dituenez, ez da errepikakorra egiten.

Halaber, ez naiz kontzertuetara joaten. Ez Benitoren, ez beste inoren. Ez daukat ohiturarik. Musika lanean eta etxean entzuten dut.

Eta euskal musikaz gain, nire garaiko musika ere entzuten dut, 80. hamarkadako taldeak. Hemen, lanean, adibidez, musika hori da hari musikalean jartzen duguna. Ez dugu irratia jartzen, gure sasoiko kantuak baizik.

**Pilar Bergara**

Sayalero langilea

**2GURPIL**

Baxoalde 2 - 3 • 20810 Orío (Gipuzkoa)

T/ 943 835 980 W/ www.2gurpil.com E/ bigurpil@hotmail.com

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99



# “Faltan sumatzen genuen hori betetzeko espazioa da Itu Banda”

## Alazne Arruti eta Peru Iparragirre

Itu literatur Bandako kideak

Literatur gosea duten hiru lagunek sortu zuten Itu banda 2013an, orain hiru urte. Zortzi dira egungo kideak: Mikele Landa, Paul Beitia, Martin Bidaurre, Itziar Ugarte, Garazi Mugarza, Maialen Akizu, Jon Gurrutxaga, Peru Iparragirre eta Alazne Arruti. Taldekideetako birekin elkartu gara, Iparragirrerekin eta Arrutirekin.

### OLATZ ARTOLA ETA MIRIAM GARCIA

Itu izenaren atzean ezkutatu ziren, eta, anonimatuan, gordeta zituzten testuak argitara eraman dituzte ordutik. Izena hiru hizkiz osatu arren, ez du loturarik sorrerako hiru kideen izenekin; baina bai, izanarekin. Ituan jotzea, dianan bete-betean asmatzea, lortu dute. Isilpeko lanak oihartzuna izan du eta iritsi da anonimotasunaren maskara kentzeko garaia. Baina beti, taldekideen altzoan, *bandan*.

#### Ausarta da banda autoizendatzea...

**Peru Iparragirre:** Ez da ironikoa, baina ez da serio hartzen dugun zerbait ere; izan ere, hiru ginen...

**Alazne Arruti:** Betidanik izan dugu irakurzaletasuna eta idazteko joera. Jende asko dago idazten duena, baina argitaratu ezin duena. Itu Bandak aukera hori ematen du.

**Iparragirre:** Faltan sumatzen genuen hori betetzeko espazioa da. Argitaratu egin nahi genuen, eta horretarako errazena guk geuk egitea da.

#### Autoekoizpena?

**Iparragirre:** Bakarrik eginez gero, bakana izan daiteke, bazterrekoa. Talde batek babesa ematen dizu. Talde izaera inportantea da.

#### Zer ematen du, bada, taldeak?

**Arruti:** Egiten duguna zabaltzen dugu horrela, baina, horrez gain, beste talde batzuetan sekula hitz egingo ez genuen horretaz hitz egiten dugu. Adibidez, familian hitz

egiten ez ditugun gauzez, eta hori oso aberasgarria da.

**Baina egiten duzuen bakarra ez da hori. Literatura diziplina askotan lantzen duzue: irratsaioak, emanaldiak...**

**Arruti:** Bi urtetan lau fanzine kaleratu genituen.

**Iparragirre:** Fanzine horiek osorik daude, nola testuak, hala PDFak interneten. Orain kaleratu berri dugun aldizkariarekin, ordea, ez dakigu oraindik zer egingo dugun.

**Arruti:** Obabako Testiguak irratsaioan kolaboratzen genuen, baina berak uztearekin batera utzi genuen irratsaioak egiteari.

Durango pintadak egin genituen, adibidez. Atentzioa emateko.

#### Zer dela eta? Zer helbururekin?

**Arruti:** *Acción poetica* delakoak politikak iruditzen zitzaizkigun, horren harira egin genuen. Aurretik esaldiak-eta pentsatu genituen, baina, zoritxarrez, hurrengo egunean erdiak kenduta zeuden dagoeneko.

#### Emanaldia EAko poesia egunetan egin zenuten, ezta?

**Arruti:** Errezitaldi bat izan zen eta guretzat berezia izan zen. Talde gisa biltzeko aukera eman zigun, proiektu finko bat izateak batasunerako aukera ematen baitu.

**Iparragirre:** Antolakuntzatik proposamena luzatu ziguten. Aukera ona izan zen. Itu fanzineko kolaboratzaileekin ez genuen harreman handirik. Bilguneak egiten hasi ginen eta taldeari kohesioa emateko pauso garrantzitsua izan zen.



“Oraingoan ere gure testuek garrantzia dute; baina, lehen ez zegoen kohesioa du orain”

**Aldizkaria ere kaleratu zenuten, Lekore. Zer desberdintasun dute fanzineak eta Lekorek?**

**Arruti:** Aurreko fanzinea eta oraingo Lekore aldizkariak erabat independenteak dira. Izenak dioen moduan, guztiz desberdinak dira. Bestea gure testuez osatuta zegoen, eta oraingoan ere garrantzia horiek dute; baina, lehen ez zegoen kohesioa du orain. Lotura handiagoa du, irekia izaten jarraitzen duen arren. Eta itxura ere landuagoa da. Hiru Damatxo ideia faktoriak egin digu maketazioa.

**Zer nolako harrera izan zuen?**

**Iparragirre:** Jendeak interes eta kuriositate handia erakutsi zuen. 120 aldizkari inguru saldu genituen.

**Eta erosi ez zuenak, non erosi dezake orain?**

**Iparragirre:** Gutxi geratzen dira, 30 ale inguru. Uste dut Zarauzko Garoan hamar bat ale daudela, adibidez.

**Etorkizunera begira, zer asmo?**

**Iparragirre:** Orain azterketetan gaude [kar, kar]

**Arruti:** Lekoreko beste hiru zenbaki atera nahi ditugu. Eta, horrez gain, emanaldiak ere egin nahi ditugu.

**Eako poesia egunetik gehiago egin dituzue?**

**Arruti:** Ez.

**Iparragirre:** Aldizkaria aurkezteko asmoa dugu. Urtarrilaren 31n Mikelazulon egingo dugu. Harpidetza sistema ere jarri nahi dugu eta errezitaldia egingo dugu Zarauzko Literaturian, besteak beste.



**Azku**



**Tf: 943 130 438**

**Azku**

**LUXARBE**  
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

**Tfnoa: 943 83 59 00**

*ederritegia*  
**ANTILLA**  
*jatetxea*



**Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09**

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**

• komertzial instalazioak • beira bikoitza  
• segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak  
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

**Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45**

**azku**  **karrozeria**

**Ubegun industrialdea, 7**  
**20809 Aia-Orio**  
**Tf/fax: 943 83 51 86**  
**carroceriasazku@hotmail.com**

  
**AIRDATZA** modas

**Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO**

**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**



**Pelotari 5, Orio**  
**943 83 00 34**

**Zure Konfidantzazko Gertuko Tailerra**

**BODEGAS Gailur**

01307 BAIÑOS de EBRO  
Tel./Fax 945 60 91 58  
www.bodegasgailur.com

**Arabar Enixoa**

**ZUDUGARAI**



*Gelariako Txakolina*

Tel. 943 83 03 86  
Fax 943 83 59 52  
bakolizudugarai@euskalnet.net  
www.bakolizudugarai.com

tel/fax: **943 89 00 69**

Bizkaia kalea, 4. 20.800 ZARAUTZ



**ITURGINTZA - BEROGINTZA - GASA**

**ORBIDE** o.k.

emakume arropa - neurri bereziak  
kinkiladenda - barruko arropa

**argine**

15eko deskontua familia ugarien txartelarekin

**Eusko Gudari, 9 - Orio**  
**943 134 889**  argine/jantziak

**Carmen eta Txomin**  
**ARRANDEGIAK**



**943 83 05 37 / 943 83 27 47**

**ITURGINTZA\_BEROGINTZA**  
**GASA\_BAINU ERAKUSKETA**

Presupuestoak konpromisorik gabe

**ARISTERRAZU**  
jatetxea



**Andatza auzoa AIA**  
**Tel. 943 83 45 21**

# ZUEN ZOZKETA

## Udaberria



Jokin Salsamendi

**Jendeak uste zuen mozorrotuta ginela. Kristoren disfrazaz lortu genuen eta guk jakin ez. Eta, noski, salmentak desastre...**

ARKARAREN deiari ezin esan ezetz, eta hemen nauzue irribarrea sortzea beste helbururik ez duen testua idazteko asmoz. Egunak berez dira astunak, eta zerbait alaia irakurtzeak beti igo ohi du morala. Morala, bizi poza, alegia; ez pentsa honek beste zerbait igoko dizuenik... beste horretarako watsappeko bideoak daude. Badakin buztan beltzaren bideoa eta...

Konturatzera ilbeltza pasa zaigu eta otsailean gara dagoeneko. 2016 ospetsu honetatik urrun ikusten dira Kilometroetako garaiak. Urruti 2014ko otsaila, non Gure Zozketa ekimena martxan jarri genuen. Badakizue 60.000 euroko saria duen zozketa. Orduan hasi zen gure abentura Gipuzkoan zehar, titiritero, Joxemari eta ferietakoan artean, odolean daramagun ijito senak deituta. Goenkale bukatu den honetan hiru ataletan azalduko dizkizuet urte hartako komeriak.

Kaleko bataioa Tolosan jaso genuen. Inauterien Igandean. 2013an Kilometroak izan ziren hirian. Kmk idatzita zuen peto horia jantzi eta San Frantzisko kalera. Hantxe hasi ginen pasarako jendeari boletoak eskaintzen. Indio, moja, troglodita eta aingeruen artean hiru satellite hori. Aldamenean txosna kutre baten gainean Egan taldearen imitatzaileak. Beste aldean iglu mugikorra kalimotxoz gainezka. Eta aurreko errepidean karrozen desfilea.

Hala ere petoak ematen zuen indarrez txartelak eskaintzen hasi ginen: Kilometroen aldeko boletorik nahi? Baina jendeak gu begiratu eta barre egiten zigun. Senar emazte adinekoak galdera entzun eta irribarrea. Aita semeak pasa eta algara. Bi gazte pasa eta ona! Aurki konturatu ginen ze gertatzen zen. Jendeak uste zuen mozorrotuta ginela. Kristoren disfrazaz lortu genuen eta guk jakin ez. Eta, noski, salmentak desastre...

Gainera, gu bezalako hiru tipo itsusiri nork erosiko zion txartelik? Kilometroen aldekoek eta behar handian zen neskazarren batek. Baina guk beti eskudirutan kobratzen genituen txartelak... Ondorenean etorri ziren emakumeak zozketako tiketak saltzera, eta emakumeak parte hartzen duten ekintza guztietan bezala, arrakasta etorri zen. Arrakasta idatzi dut, zergatik egiten duk barre? Orduan hasi zen proiektua indartzen.



Lore Berasaluze

## Ludo ludimos, elkarrekin jolastuz

lusioz hartu nuen udazkenetik aurrera ludoteka izango genuenaren albiste. *Bazen garaia!* pentsatu nuen neguko egun busti horietan umeekin non jolastua izango genuelakoan. Eta hala, gure gustuko pelikula egin genuen gurasoen arteko hizketaldietan; *halakoa izango da eta holako eskainiko digu, ze ederki!* Baina gu ez izan gidoilariak!

Aparra bezain azkar egin du behera nire ilusioak. Umeak aparkatzeko beste eskaintza bat iruditzen zait ludoteka. Eskolaz kanpoko nahikoa jardueraz ez eta beste bat gehiago. Gurasoak *premiak* beste zeregin batean dauden bitartean –umeekin jolastea, elkarbanatzea, eztabaidatzea, ikastea... baino egin behar garrantzitsuagorik– haurrak entretenitzeko txoko berri eta polita.


Gaur egungo bizimoduarekin guraso askok behar ditu umeak zainduta egongo diren lekuak. Ados. Horrelako mordera dauzkagu eta ez nago horiek kentzearen kontra; neurrian bada, alde ere bai. Baina, bestelako zerbitzuak ere eskaini behar lituzke herri batek. Beren seme-alaben hezkuntzan agente aktibo izan nahi dugun, edo izateko aukera dugun, gurasoek gure umeekin jolasteko espazio libreak nahi ditugu; malguak, denborari eta jarduerari lotu gabekoak; interesak, sormena, gogo, ezinak, haserreak... errespetatzen dituen funtzionamendu askeko ludotekarekin egiten dugu amets.





# Galderak eragitea, erantzun egokiena

Herri euskaldun peto-pettoa imajinatzen dugu Aia, ia erabat euskaraz egiten dena. Joxe Anjel Aldai herritarrak Aiako kale eta leku publikoetako ahozko hizkuntzaren erabilera neurtu du, eta ia laurdenak. %23,84ak, gaztelaniaz hitz egiten du.



**TESTUA: OLATZARTOLA**  
**ARGAZKIAK: KARKARA**

**H**ogei urte atzeraeginez gero, Aian argazki gutziz ezberdin bat aurkituko genuke, nola euskararen erradiografiari erreparatuz gero, hala egoera sozio-ekonomiko kulturalari dagokionez.

Aldaketa horren erretratua egin nahi izan du Joxe Anjel Aldai Arrillagak. Masterreko azken lana egin behar zuela aitzakia hartuta, Aiako kaleko eta leku publikoetako ahozko hizkuntzaren erabilera neurtu du.

Datuak biltzeko 151 elkarrizketa entzun ditu Aldaik. Sozilinguistikako klusterrak dituen irizpideak ibili ditu bai elkarrizketatuen adin-tarteak ezartzeko, bai laginak ebaluatzeko. Ondorio potoloak ateratzeko sakonago aztertu behar dela aitortu duen arren, eta aurretik analisi mardulig egin ez den arren, lortutako datuek euskararen termometroa erdaldun-

tzen ari dela islatzen dute. Aurreko hamarkadetan baino erdaldunagoa da Aia. Egun, kale eta leku publikoetan, euskararen erabilera %64,24koa da, gaztelaniarena %23,84koa eta kode aldaketa %11,26koa.

Erdalduntze prozesu horretan eragina izan duten faktore-etako batzuk gaitasuna, etxeko euskararen erabilera eta etxeen eraikitzea dira.

**Gaitasunak eragin zuzena euskaldun kopuruan**

Eustatek neurtzen du euskararen gaitasuna. Azkenengo datuak 2011koak dira, eta duela bost urte %6 ziren Aian erdaldunak, eta beste %6a ia euskaldunak.

Euskaldun horien artean, gehiengoa, alfabetatua dago. Euskaldun alfabetatuak biztanleriaren %69a da. Gero eta haur eskolatu gehiago egon arren -1986an %10 soilik zen alfabetatua-, euskara gaitasunak behera egin du. Izan ere, populazio orokorra hartzen da kontuan eta hor, haurrak nahiz helduak sartzen dira.





### Ama hizkuntzan gaztelania nabarmen hazi da

Atzera egiten ari da euskararen erabilera etxe barruan. Hamar urtean %92tik %74-ra jaitsi da erabilera. Euskarak behera eta gaztelaniak gora, %5etik %17-ra. Horrek eragin zuena du transmisioan.

### Gizon-emakumeen arteko aldea, argia

Bien arteko aldea *esaguratsua* irudituz aie egileari. 12 puntukoa da diferentzia. Hortaz, generoaren eragina handia dela ondorioztatu du aiarrak. Elkarrizketetak genero berekoen artean direnean, gizonezkoek, euskaraz egiten dute ia beti, %71k –emaitza orokorretan baino zazpi puntu gehiago–; emakumezkoen kasuan, aldiz, %59k –emaitza orokorretan baino bost puntu gutxiago–.

### Eraiki ahala, erdaldundu

Aiako populazioa hazi egin da. Egun 2053 biztanle ditu Aiak. Horieta asko kanpotik etorritakoak dira, etxebizitzak eraiki direlako eta inguruko herrietan baino merkeagoa delako, besteak beste. Eta kanpotik etorritakoek, oro har, eragina izan dute erdalduntze prozesuan. Gaztelaniaz hitz egiten dute, sarri, etxean nahiz etxetik kanpo.

Horrez gain, Aiako auzoetako errealitatea ere ezberdina da. Alboko herrietatik gertuen dauden auzoetan, Santion kasu, gaztelarak presentzia handia du, %52,94. Dena den, Urdanetako egoerak hankaz gora jartzen du aurretik esandakoa, gaztelaniak %10ko presentzia baitu.

“Beste gune handiago eta industrializatuago batzuk bezala, Aia ere erdalduntzen ari da”

### ZENBAKIA

# 151

**Elkarrizketa.** Datuak biltzeko 151 elkarrizketa entzun zituen Joxe Anjel Aldaik. Elkarrizketa horiek aurrez adostu gabeak izan dira, hau da, momentuan hizketan topatu dituenak entzuteru mugatu da. Hori bai, herriko gune bakoitzean zenbat elkarrizketa entzun behar zituen aurrez zehaztu zuen.



Baina ondorio nagusietako bat kanpokoan artean gaztelania gehiago erabiltzen dela da, bertan jaiotakoekin alderatuz gero, diferentzia handia da.

### **Heldu askok, gaztelaniaz**

Haurren artean gaztelania apenas entzun du Aldaik. Haurren %91,66ak euskaraz hitz egiten du. Haurren eta helduen arteko elkarrizketetan ere, batzaz beste, %77,77an euskara erabili da. Hori bai, haurrak egonagatik, elkarrizketan era aktiboan parte hartzen ez badute, behera egiten du euskarak.

Helduek, ordea, gaztelania nabarmen erabiltzen dute –datu orokorra baino bost puntu altuago–. Aipagarria egin zaion beste datu bat kode aldaketa ia guztiak helduen elkarrizketetan izatea da.

### **Ez erabiltzeak pobregoa izatea dakar**

Aia uste bezain euskalduna ez dela begibistakoa da datuak begiratuz gero. *Beste gune industrializatuago eta handiago batzuk bezala, Aia ere erdalduntzen ari da, azaldu du Aldaik. Atzera egiten ari da. Ez bakarrik erabileran, gaitasunean eta datu neurgarrietan, baita kalitatean ere.*

Kalitateak lotura estua du erabilerarekin. Gure aurrekoen ahozko euskara aberatsagoa da. Haiek erabiltzen zituzten esapideak galdu egin ditugu, hitanoa ere presentzia galtzen ari denaren susmoa du Aldaik. *Oso nabarmena da hori: gero eta gutxiago erabili euskara, pobregoa izango da.*

Eta pertzepzio hori du Aldaik. Euskara kalean protagonismoa galtzen ari dela. Susmo hori du. Eta susmoa argitzeko, *gizartea aldatzen ari al zaigu?* galderaren erantzun bila duela bi urte hasi zen Aldai, 2014ko abenduan. 2015eko martxora arte datuak biltzen ibili zen; ondoren lana biribiltzen ibili zen, xehetzen, fintzen. Eta erantzun gisa galdera gehiago planteatzen ditu Aldaik: zerbait gertatzen ari al da gure herrian? Gertatzen ari bada, onerako ala kalterako da? Hizkuntza aldatzen ari bazaigu, gure harremanak eta harreman-sareak ere aldatzen ari al dira? Honen aurrean, zer egin?

Dena den, egin duen bilaketa horretan esperotakoa aurkitu duela azaldu du aiarrak: *euskararen erabilerak kalean eta leku publikoetan behera egin du.*

2015eko ekainaren amaieran aurkeztu zuen lana oraindik ez du herritarrekin partekatatu. Eta, elkarrizketa honen bidez ezagutzera eramaten bada, irakurleari galdera horiek sortzea gustatuko litziaoke Aldairi. Horrekin konformatzen da, lan honekin ez baitu pretentsio handiagorik.

### **Lan guztia KARKARA.eus webgunean irakurgai**

Erreportaje honetan azaletik besterik ez dugu landu gaia, hamaika baitira Aldairen lanean agertzen diren datuak, hausnarketarako gakoak eta lerroartean atera daitezkeen ondorioak. Horregatik guztiagatik, KARKARAko atari digitalean –KARKARA.eus– Aldairen lana eskegiko dugu erreportajearekin batera. Interesa duenak, beraz, online izango du esku-ragarri PDF formatuan.





## **JOXE ANJEL ALDAI ARRILLAGA:** **“LAN HONEKIN DAUKADAN PRETENSIO TXIKI BAKARRA** **EZAGUTARAZTEKOA ETA JENDEARI GALDERAK SORTZEKOA DA”**

### **Zein izan zen ikerketa lan honen abiapuntua?**

Funtsean, uste dut, kuriositateagatik izan zela, baina baita kezkatik ere. Sumatzen dut, nahiz eta zoritxarrez asko ez den komentatzen, nahikoa nabarmen aldatzen ari dela herria. Ez onerako, ez txarrerako. Aldaketa hori saiatu naiz islatzen, izan ere, azken hamabost urteetan, aurreko hamarkadetan ez bezala, herria aldatzen ari da eta aldaketa horiek, antza, eragina dute erdalduntze prozesuan.

### **Hortaz, duzun kezka edo ardura hori plazaratu nahi duzu. Herritarrak gai honen bueltan hizketan jarri.**

Aurretik ez da kaleko euskara neurtu, sekula. Daturik ez daukagun arren, pertzepzioa dut gutxiago erabiltzen dela. Gogoia eta esperantza daukat eskolaren eskutik-edo, nolabait, lanaren berri emateko gurasoei.

### **Eskolaz ari garela... guraso batzuek eskolako irakasgai batzuk gaztelaniaz emateko eskakizuna egin zuten. Zergatik izan daiteke, gaztelaniaz moldatuko ez direnaren konplexua dutelako?**

Ez naiz egokiena horretaz hitz egiteko, nire ideiak ditudan arren. Konplexua baino gehiago ezjakintasuna dela esango nuke, irudipena beren seme-alabak Aiatik kanpo gaizki moldatuko direla. Gaztelaniaz motel dabiltzala euskara soilik egiten dutelako. Baina batak ez du bestea kentzen. Iruditzen zait erabat euskaraz eskolatzea fundamentala dela, hizkuntza horretan erabateko garapena eta funtzionaltasun osoa izateako. Erdipurdi eskolatutakoak arazoa izango baitu. Nire jenerazioan gertatzen da hori, asko ez baitira gai euskarazko egunkaria irakurtzeko.

### **Eskolako gurasoek alderantzizkoa esan dezateke.**

Erabat demostratuta dago, gerora ere gaztelaniaz hitz egiteko gaitasuna izango dutela. Batetik, haurrak direnetik hitz egiteko gaitasun minimoa dutelako; eta, bestetik, hainbat iturritatik gaztelania jasotzen dutelako: eskolan, telebista, internet... Kezka hori zilegi iruditzen zait, baina ezin du bestearen kalterako izan. Hori da kezkarria, pentsatzea gaztelania beharko dutela eta euskara ahazko hizkuntza bakarrik dela.

### **Eskolak ez ezik, Udalak ere lagundu dezake euskararen normalizazioan, zure kezka plazaratzen. Aian, ordea, ez dago euskara teknikaririk edo herriko talde eragilerik. Hutsune hori ikusten duzu?**

Inoiz ez dago soberan. Are gehiago orain. Lan honekin daukadan pretentsio txiki bakarra ezagutaraztekoa eta jendeari galderak sortzekoa da. Ez dakit Aian, daukagun biztanleria eta ditugun baliabideak kontuan hartuta, zer zerbitzuek egon behar duen; baina, iruditzen zait, kezka gutxienez eduki behar dugula. Kezka horri bidea emateko Udalak laguntza eman behar du. Baina ez soilik udalak, elkarte eta mugimenduek ere ardura pittin bat hartu beharko lukete.



## *Kilotan ia 50 eta luzeran ia bi metro*

**B**i andexa handi, berrugeta ilun, harrapatu zituzten urtarrilaren 17an Orion, Anarri inguruan, bi lagunek. Horietako bat Zigor Lizaso da. Arrainak berrugeta ilunak, andexak dira. Handienak 45,200kg pixatzen ditu eta txikiak 29,700kg. Biak luzeak dira oso, 1,50 eta ia 2 metro dituzte.

Arrantzaleak ez dira oriotarrak, baina Orion ibili izan ohi dira arrantzan. Arrain horiek ere Orion harrapatu zituzten, arestian aipatu bezala, Anarri inguruan. Berrugeta handiez gain, arrain txikiagoak ere arrantzatzen zituzten.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-ritakoa dela jarrita.



**Izarra Elektrogailuak**

**MAXI ESKAINTZAK**

6kg 1000r/min **249 €**

20L **65 €**

multifuntzionala **199 €**

LG 24" (zuri) **179 €**

HP **339 €**

16GB Quad Core **99<sup>90</sup> €**

-tik hasita **19<sup>90</sup> €**

**TIEN 21** Eusko gudari, 44 • 943 833 881 **TIEN 21**

**Berehala zuekin**

**Galerna JATETXEA**

Antillako Hondartza 5  
20810-Orio-Tel.:943 89 04 16

**Imanol Illarramendi**  
Aia (Gipuzkoa)

**KORTABERRI**  
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com **665 70 33 47**

**sinergia** FISIOTERAPIA  
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM  
TF.: 943 130 577 685 718 595

**LESIOAK:** BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAITIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

**LEUNDA OKINGEDIA**

**ORDUTEGIA**

ASTELEKENETIK - LARUNBATERA 7:00 - 20:30  
IGANDE ETA JAI-EGUNETAN 7:00 - 13:30

TEL.FONO: 943-89.00.67

**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO 943 53 64 94 :: 697 23 86 56

*Lizaso dekorazioa*

**Tf: 943 83 07 84**

**Faxa: 943 24 87 15**

**Eusko Gudari. 48**

75 m<sup>2</sup>ko **PISUA SALGAI** Prezioa: 165.000 euro  
Aian, Santio Errekan kokatua **607 510 356**

Hiru logela ditu, sukalde handia, egongela eta bainugela.  
Horrez gain, komunitate-lorategia eta kanpoko aparkaleku pribatua.

obrak proiektuak errehabilitazioak txostenak eraikuntza zerbitzuak ITEak eraikinen mantenua

**XS** arkitektura

borja agirresarobe lopetegi herriko-barra 6, behea 20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2  
9 4 3 1 3 4 3 5 8  
xs@xsarkitektura.com

# Herri eta auzo, auzo eta herri



Olatz Zuloaga

**A**ure herria Aia, batzuentzat hain txikia den zerbait, guretzat ze handi izan daitekeen ere ez dago sinisterik, ez al da horrela Olatz? Aia herriz txikia baina eremuz zabala dela argi dakigu. Herri txiki hau inguruko auzo eta bizitokien erreferentzia izan da urteetan zehar. Orain dela ez asko txikia, baina urte gutxitan gorakada izan duen herria da Aia. Auzoetatik eta inguruko herrietatik jende asko etorri da bizitzera; Andatzako eskola itxi dute, umeen jaiotza tasa igo eta kanpoko herrietatik etorri diren familien ondorioz; eskola ere txikia gelditu zaigu! Guk ez dugu ohitura handirik auzoetara mugitzeko; auzokoek, ordea, herrira gerturatu behar izan duzue: erosketak, medikua, etab. Horren ondorioz auzo eta herritarren lotura indartu egin da. Zer diozu zuk Olatz?

## **“Hortik gure harremanaren gakoa: herrikook eta auzokook elkarren beharra izatea”**

Baina esan beharra dago, denok izan dugula bestearen beharra. Gogoratzen al zara gazteagoak ginenean Zarautza edo Oriora joateko ere elkarren beharra izaten genuela? A ze joan etorri mordoa egin duten gure gurasoek! Entrenamendura joateko, parrandara joateko...

Herri txikian bizitzeak eta zuek ere auzoan bizitzeak elkarrekin kontatu behar izatera eramán gintuen; autobusek ere ez ziguten kointziditzen... a zer nolako buruhaustek! Hortik gure harremanaren gakoa: herriko eta auzokook elkarren beharra izatea.



Olatz Beldarrain

**H**orrela da, bai, Olatz; batzuentzat ezer ez dagoen lekuak zenbat bete gaituen sinisterik ere ez dago. Bai, Aiako kas-kora joateko beharra askotan izan dugula aitortu beharra dut... baina zuek ere, zer egingo zenukete San Pedro bezalako auzo baten faltan? Oraindik oso presente daukat errekará bainatzera amorratzen jaisten zineten momentua edo herriko frontoia okupatuta dagoenean nora jaisten zarete? Ai... gure auzo txiki honek ere zenbat gauza ematen dizkigun... Errekako momentuak, mendi inguruetakó ibilaldi ugariak, igandetakó erromeriko bueltak... non hobeto San Pedro bezalako auzo txiki batean baino? Orain konturatzen naiz herritik aparte ere gure auzoak dituen onuretzat.

## **“Oraindik oso presente daukat errekará bainatzera amorratzen jaisten zineten momentua”**

Eta bai, honi guztiari esker gurea bezalako harreman ugari sendotu dira; herriaren eta auzoaren arteko kontaktua beharrezkoa izan da eta aurrerantzean ere horrela izatea polita izango litzateke, ez al duzu uste? Oraindik ere kotxea konpartitzen jarraitzen dugu, hau da, oraindik ere elkarrekin kontatu behar izaten dugu. Zeinen polita herri eta auzoen arteko kontaktua!

Aurrerantzean ere horrela jarrai dezagun, eta bakearen alde, aitortuko dizut zu bezala herrian bizitzea ere erosoá izango zela. Ez pentsa inbidiarik ematen ez didazunik, baina jakin ezazu gure auzo txikia ez nukela ezergatik ere aldatuko!





## Gutunetako ilusioak opari paperean bilduta

2015aren apurretan ospatzen ditugu Gabonak. Aian eta Orion agenda mardula izaten da urteari agur esateko, hamaika egitaldi izaten baitira; eta, horietako asko, haurrei zuzendutakoak. Aiako kultur etxea zine areto bilakatu zen, kiroldegian jolas parke, hirigunea atletismo-pista... Orion ere antzera, frontoia bizarzuriri gutunak emateko postontzi bilakatu zen, plaza argi printzen sorgune, herriko kaleak Olentzero eta Maridomingi eta bere laguneren korridore, Ikastolako pergola kantari eta sortzaileen bilgune, kiroldegia magiaren aterpe... Gabonetan ekintza ugari izan dira herriko eragileek antolatutakoak eta, oro har, harrera bikaina izan dute.







# “Gizatasunaren gaineratik dago hemen interes ekonomikoa, eskala guztietan”

## Ibai Jauregi Otegi

Soroslea eta *Basque Lifeguards* taldeko kidea

*Basque Lifeguards*. Horrela izendatu dute Gipuzkoako sorosle taldea Grezian, errefuxiatuak laguntzera joan dena. Taldeko kide da Ibai Jauregi.

### O. ARTOLA ETA M. GARCIA

Sarritan izaten dira asmo onak. Baina, maiz, beldurrak edo aurkitu dezakegunaren gaineko ezjakintasunak, aulkian eserita geratzea dakar. Asmo ona horretan gelditzen da, asmoan. Ibai Jauregi eta bere lagunak, ordea, izuak albo batera utzi, eta errefuxiatuen beldurra arintzera joan dira Greziara, iheslariei laguntzera.

#### Zer dela eta joan zarete Greziara?

Pasa den urtean komunikabide askori esker Grezian errefuxiatu emigratzaileek zituzten arazoan berri izan nuen. Lagunartean gai hau aipatu orduko zerbait egin genezakeela pentsatu genuen, azken urteotan jaso dugun erreskateko formakuntzaz baliatuz; eta aurrera pauso bat ematea erabaki genuen.

#### Salvamento Marítimo Humanitario izeneko proiektua sortzea asko kostatu zitzaizuen?

Lehen bilera egitetik taldea irteteko moduan izatera hiru aste pasa ziren. Paperak egitea, beraz, ez da zaila. Hortaz gain, bi lagun aritu ginen buru belarri, 20 egunez, lanean

erreskateko materialak, uretako motorra eta anbulantzia lortzeko eta horiek egokitzen.

#### Oztopoak izan dituzue bidean eta aldaketak taldean. Zertan zabilta orain?

Guk sortutako Gobernu Kanpoko Erakundeko lehendakariarekin bat ez gentozela eta gure printzipioak urratzen hasi zirelakoan, lehenengo bileran elkartutako 8tik 6 lagunek taldea uztea erabaki genuen.

Hortik bi egunera laukote bat –dirua gure poltsikotik jarrita– Lesbos uhartera joan ginen laguntza eskaintzera hegala –*aleta*– eta neoprenoak hartuta.

#### Komunikabideetan kontatzen dituzten argazkia/errealitatea topatu zenuten hara iristean?

Berri gogorak iristen dira Greziako uharte hauetako gertaeren inguruan, baina bertara iritsi arte oso zaila da benetan ohartzea zein den hemengo panorama. Astero dago uretan hildakoren bat eta hori da berrietan azaltzen dena, baina ez dugu ezer jakiten egunero hemen bizia arriskuan jartzen dutenen inguruan. Emigratzaile behartuak izateko sentitu dituzten bizipenen inguruan ez da askorik jakiten. Gerra,



Ibai Jauregi, behean ezkerrean, Basque Lifeguards taldeko gainontzeko kideekin batera Orion.

heriotza, gosea eta beste hainbat arrazoi.

#### **Nola deskribatu zenezake hangoa?**

Etorkin uholdea! 50 pertsona inguru ontziko. 10 ontzi bat az bestea egunean guk zaintzen dugun 12 kilometroko eremuan. Lesbosera ontziak iristen diren kostak 60 kilometrotik gora neurtzen du. Beraz, atera kontuak! Eta orain pentsatu hori ez dela uharte bakarra, beste bi oso aktibo daude gutxienez momentu hauetan, erokeria!

#### **Eta zuek, nola laguntzen diezue? Ba al dago elkarlan gehiago zuek bezala hara joandako talderik?**

Gure lana ontzietako jendea salbu iristen dela bermatzea da; lehorreratzen lagundu eta lehen asistentzia ematea iristea lortu dutenei, eta bidean motor edo gasolinarik gabe geratu direnen bila irtetea igeri. Kasu askotan suertatu zaigu beren bila joan beharra, gauez batez ere. Laukoteak ontzia heldu eta hegalei esker lehorreratu ahal izaten ditugu.

Sevillar eta palentziar suhiltzaileekin elkarlanean aritzen gara ordutegi berean gabiltzanean.

#### **Zuen eguna nolakoa da?**

Gaueko 22:00etan jaiki, gosari-afaria egin, neoprenoak jantzi eta 23:00etarako kostaldean izaten gara, lanean, hurrengo eguneko eguerdira arte. Bukaera ordutegia ontzien etorriak markatzen digu. Eguna bukatzeko bazkaldu eta lotara.

#### **Aurreko KARKARAKO iritzian, zorigaitzetik negozioa egiten dutenik badela aipatu zenuen. Ikusi duzue horrelakorik?**

Turkiako mafien berri ugari ematen digute etorkinek. Pistolapean behartzen dituztela ontzira sartzera eguraldi

“Emigratzera behartuak izateko sentitu dituzten bizipenen inguruan ez da askorik jakiten. Gerra, heriotza, gosea eta beste hainbat arrazoi”





Basque Lifeguard taldekoak errefuxiatuei laguntzen. CAUSASCOMUNS

txarragatik ontziratzera ausartzen ez direnak. Ontzi fabrikak, txalekoenak, Greziako hotel, taxi eta dendek ere aprobetxatzen dute hainbeste jenderen beharra prezioak egunetik egunera igotzeko. Gizatasunaren gainetik dago hemen interes ekonomikoa, eskala guztietan.

**Beren bizipenak ere kontatzen dizkizute, hortaz.**

Bizipenak kontatzen dizkigutenean bihotza hunkitzen digute, eta esker ona azaltzeko minutu bateko besarkada ematen badizute, ez duzu asmatzen nola azaldu sentitzen duzuna. Oso esker oneko jendea da eta lanean aritzeko indarrak ematen dizkigu. Zoragarria da hartu-eman.

**Duela hilabete batzuk komunikabide guztietan hizpide zen errefuxiatuen egoera, orain ia ez da agertu ere egiten.**

**Horrek eraginik ba al du laguntza humanitarioan?**

Gero eta jende gehiago dago hemen lankidetzan eta komunikabideek beren lana ongi bete dute. Sevilla eta Palentziako suhiltzaileek gure berri egunkariz izan omen zuten eta horri esker animatu ziren hona etortzera.

Berriak saldu behar dira eta hemen ez dago horrelakorik. Hau eguneroko historia da, beraz, ulertzekoa da hainbeste ez aipatzea.

**Etxean egon zarete egun batzuk. Nolakoa izan da etxera itzultzea? Eta orain berriz Lesbosera joatea?**

Hiru astez aritu ginen lanean eta etxerako buelta gogorra izango zela uste genuen. Bigarren bidaiara antolatzen hasi ginen talde berriari itxura emanez. *Basque Lifeguard* gisa ezagutzen gaituzte Grezian eta *facebooka* sortzea erabaki genuen bertakoekin kontaktuari eusteko. Anbulantzia eta uretako motorra lortu genituen, berriro ere, eta horiekin etorri ginen berriz Greziara. Ez dugu beste ezertarako astirik izan, beraz, etxean egon ez bagina bezala izan da. Ez da erraza hemendik deskonektatzea.

**Garrantzitsua al da han gertatutakoaren berri ematea?**

Lesboseko berri izan ez bagenu ez ginateke hemen izango. Hemengo berri eman behar genuela pentsatzen genuelako sortu genuen *facebooka*, bertan ezagututako argazkilarien lanak erakutsita jendeari historia hau azaltzeko.

**Noiz arte egongo zarete han?**

Urtarrilaren 11n irten ginen Oriotik eta 14an iritsi ginen, hilabete osoa pasatzeko asmotan gara. Elkarrizketa aprobetxatuz, agur bero bat eta besarkada bat bidaltzen dizkizuegu taldekideok lagundu eta animatu gaituzuen guztioi.

## OSPAKIZUNA



## Gozategik 25 urte bete ditu

2015a Gozategi taldearen 25. urteurrena ospatzen bukatu zuten Orioko Herri Ikastolako ikasleek. Gozategi taldeak ekitaldi bereziak antolatu ditu Euskal Herrian eta lehenengoa Orioko Ikastolan izan da. Asier eta Ainhoa ikastolako ikasleak izanik, hala izatea nahi izan dute. Lehengo saio hau DBHko ikasleei begira egin zuten. 25 urteetako ibilbidea irudiekin eta musikarekin kontatuko zieten ikasleei.

## HANDIK ETA HEMENDIK

# “

“Zergatik zabaldu zen euskaldunok ez dugula larrurik jotzen, falazia hori? Gezurra. Eliza eta kuadrilla dira kulpablerik handienak”

**Aitor Arregi**, komediantea, Euskadi Irratiko Amarauna saioan, urtarrilaren 5ean.

“Jendearekin sentitzen naiz eroso. Gustatuko litzaidake kaleko jendearen kezka politikariengana eramatea. Ahotsa ez duten herritarren kezka plazaratu”

**Ibon Gaztañazpi**, Herri People saioko aurkezlea, Berrian, urtarrilaren 20an.

“Federazioa erakunde oso handia zela ikusi nuen, eta lehen asanblean esan nuen aldatu beharra geneukala federazioaren ikuspuntua”

**Joxe Anjel Zaldua**, Euskadiko Ehiza Jsangarri eta Bio Aniztasunerako fundazioaren zuzendari ohia, Euskadi Irratian, urtarrilaren 20an.



PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TELF - 943.572083  
FAX - 943.571190  
i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO  
IBAI ONDO 13  
20810 ORIO



arkaitz taberna  
orio

- Ogiturtekoak - Pintxoak  
- Plater konbinatuak  
- Karta

Terraza aler narekin  
Ginazur hobea

abestari kalea 6 - 943 831 657



**EOP**  
 ELEKTRIZITATEA  
*Ander Exposito*  
 943 831 774  
 600 856 728  
 anderexpoelektrizitatea@gmail.com

**EKILORE GARBIKETAK**  
  
 626417841  
 ekilore@outlook.es

*Garbiñe Arregi*  
 Moda eta osagarriak  
 Horriko plaza, 5  
 635 706 265  
 jategunetan goizez zabalik!




**Gabon**  
 TABERNA  
 ✓ Pintxoak  
 ✓ Plater konbinatuak  
 ✓ Ogitar tekak  
 943 83 06 09

Ile apaindegia  
**MARIJO**  
  
 Neska eta mutilentzat  
 Eusko Gudari, 8 - behea  
 Tel. 943 13 47 29  
 ORIO

**MENDIZABAL AROZTEGIA**  
 Neurriko armarriak eta ejurlanak  
 943 831 175 Altxeri bidea  
 645 708 491 Belf-Aiai etxea  
 mendi@arozgi.net 20810 Aia-Orio

**URANGA**  
 burdindegia  
 Opari, menaje eta erremintak  
 fer.uranga@euskalnet.net  
 Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

**J. MAIZA AROZTEGIA LEIHO ISOLATZAILEAK (PVC)**  
 \* INSTALAZIO OSOA  
 \* OSZILOBATIENTEA  
 \* ALUMINIOZKO PERTSIANA  
 \* BARRUKO ETA KANPOKO BUKAERA  
 \* BEIRA BIKOITZA ETA ISOLATZAILEA 4-16-4

 70 x 130 420€	 120 x 120 530€	 120 x 220 630€
---	--	---

TEL. 690 99 39 32  
 943 30 07 88  
[www.carpinteriamaiza.com](http://www.carpinteriamaiza.com)  
[info@carpinteriamaiza.com](mailto:info@carpinteriamaiza.com)  
 ALUMINIOAN ERE AURREKONTUA  
 KONPROMISORIK GABE

**Joana Murgiondo**  
 Aseguru-agentea  
 C C L  
 CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.  
 Abeslari, 4- 2. esk.  
 Tfnoa: 943 13 46 07

**OREKA FISIOTERAPIA**  
  
 Tendinitisak  
 Lumbalgia  
 Artrosia  
 Zefaleak ...  
 Masaje terapeutikoa, bentosak, akupuntura, eskuzko terapia, osteopatia  
**943 13 35 37**  
 Aritzaga kalea, 11 behea

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK  
  
**ROSA**  
 GARBIÑE ARRILLAGA  
 ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43  
 www.facebook.com/rosadendaorio  
 810€ko DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

**SU KIA**  
 TABERNA · JATETXEA  
 On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!  
 - OILASKO ERREKA ERAMATEKO  
 - EGUNEKO MENUA  
 - EGUNKARIAK  
 - OGIA  
 TF.: 943 892 129  
 ABAFOMENDI 38, 1. BAXUA

  
**Sagasti LEIHOAK**  
 ROBERTO SAGASTI  
 Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50  
 sagasti@sagastileihoak.com  
 Arrantzale kalea, 65  
 20810 ORIO (Gipuzkoa)

**Portu ERRETEGIA**  
 Santo Erreka Auzoa, zig  
 943 89 44 34  
 20809 AIA-ORIO  
 kazolirik, baserriko oilaskan parribako errekiak eguneko menua...

**Zarautz** Hileta Zerbitzuak  
**Harrespil** Hilerriz Zerbitzuak  
 > Hilerrien kudeaketa  
 > Hileta zerbitzu orokorrak  
 > Zerbitzu iraunkorra  
 Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

# Urruntzeez



Eli Huegun

***Dena den, elkarrekin hitz egiten den bost alditatik hirutan haserre eta elkarri mokoka bukatzen dela ikusita, zaila da lehengora bueltatzea posible dela sentitzea.***

emen idatzi nuen azken aldian itsasoari buruz aritu nintzen, harengandik urrun bizi eta uzten duen ustekabeko hutsune horri buruz. Gaurkoan ere hutsune batez hitz egitera nator, balizko hutsune batez agian, oraindik haustura egikaritu ez bada ere, hartutako bideak zuzen horretara zaramatzala konturatzeak sortzen dizun hutsuneaz. Pertsona bat galtzeari buruz ari naiz.

Galera hori ez da bizitzak eragina, bi aldeetako bakoitzak hartutako erabakien ondorioa baizik.

Lagunen arteko harremanak hoztea ez da gauza arraroa, urruntze horren arrazoa beste faktore batzuek eratorria denean bereziki, lehen esan dudana bezala. Ez zait behin bakarrik gertatu, eta ziurtasun osoz esan ahal izango nuke, berriz ere, gertatuko zaidala. Eta ez niri bakarrik.

Esatera natorrena oso bestelakoa da, egoera deseroso baten aurrean hartu ahal izango genukeen erabaki posible baten gogoeta moduko bat. Horrelakoez hitz egiten dugunean, normalean bikote harremanei egiten diegu erreferentzia, baina bestelako harremanetarako ere balio du, giza izatea-

ren oinarrian baitago, bikotekidearengandik aparte, norbanakoaren ingurune soziala.

Urruntze horren kausa erabat boluntarioa litzateke, harremanaren toxikotasunaz jabetu eta beste irtenbiderik bilatzen ez denean hartu beharrekoa. Oso muturrekoa, bai, baina askotan ezinbestekoa ere bai.

Diotenez, pertsona batek esku batean hatz gehiago ditu bizitza osoan mantenduko dituen gertu-gertuko lagunak baino. Zer gertatzen da zure ustetan harreman horietako batek eragiten dizuna tristura eta etsipena direnean? Zer egin? Asmatu behar da gauzak esateko era egokia bilatzen, baita esaten zaizkigunak aintzat hartzen ere. Arraroa litzateke, esaten duen guztian, bietako bat erabat zuzen eta bestea erabat oker egotea. Dena den, elkarrekin hitz egiten den bost alditatik hirutan haserre eta elkarri mokoka bukatzen dela ikusita, zaila da lehengora bueltatzea posible dela sentitzea.

Pentsatu nahi dut hainbeste urtean eraikitako konfiantzak lagundu behar duela egoerari buelta ematen, baina jakin behar dugu horrekin bakarrik ez direla gauzak konpontzen.



# Etxeko ezagunak

**J. M<sup>a</sup> USANDIZAGA (1887-1915)**  
Organo lanak - Obras para Órgano



**Aitor Olea Juaristi**  
ausArt records - klasikart

Konpositoreaz gain, organo interprete trebea ere izan zen Usandizaga bera.

## Kritika Organo lanak - J.M Usandizaga

**Diskoa,** Usandizagaren organo lanak biltzen dituen diskoa da.

**E**hun urte bete dira J. M. Usandizaga (1887-1915) hil zela eta haren lanaren zati handi bat argitaratu gabe dago oraindik. Hori da ausArt records etxearen merituetako bat: gurean sortutako musika eskura jartzea grabazio txukun eta erakargarrietan. Ez diogu inoiz behar bezainbeste eskertuko Juan Rekarteri egiten duen lana.

Eliza handietako giroa, hango oihartzunek, organoaren turtuetatik datorren musikak airea mugitzerakoan sortzen duen dardara... zaila da etxeko salan berdintzea eta, diskoan entzuterakoan, erraza Usandizagaren musikaren harmonia ahaltsuen ederra da galtzea. Alabaina, badira oso gustura entzuten diren piezak, esaterako, Chorale variée eta Variaciones sinfónicas para órgano; seguru asko, gertuagokoak egiten zaizkigulako tempo lasai eta intimoak bestelako hotsandiak baino. Aitor Olea Juaristi aritu da jotzen, Zarauzko eta Azkoitiko Andre Maria Erreginaren elizetako organoetan. Zuzeneko grabazioak dira: interpretearen mugimenduak antzeman daitezke hatzekin eta hankekin teklatuaren gainean ibiltzerakoan sortzen diren soinuengatik.

ANA G. DE TXABARRI

943831048  
610697668



[www.fotoramiro.com](http://www.fotoramiro.com)



# Minbiziak emandako bizimina



Anjel Lertxundi liburuaren aurkezpenean. BERRIA

## Kritika Zu

**Liburua,** Anjel Lertxundi idazleak 2015eko abenduan kaleratu zuen Zu, emaztearen gaixotasunaren harira idatzitakoa.

**G**aitza, sufrimendua, heriotzaren hurbila. Horiek dira nobela honen abiapuntua eta gai nagusiak. Inork ez dezala pentsa, ordea, liburu ilun, triste edo agoniko baten aurrean gaudenik. Ezta gutxia-go ere. Bi dira protagonista nagusiak: pankreako minbizia duen emaztea eta haren senar idazlea. Tamalez, gertakari gutxi asmatu behar izan du Lertxundik fikzio edo autofikzio hau ontzeko.

Biei gertatutakoek eta, batez ere, senar idazlearen gogoe-tek osatzen dute kontakizuna. Erreferentzia literario eta artistiko ugari baliatzen ditu idazleak, aipatutako gai-eta hamaika ertzetatik begiratu eta heltzeko, osotasun aberatsa eskainiz. Hala ere, erraz, gozo irakurtzen da den-dena.

Duintasunez egiten dio aurre bikoteak gaitzari. Eta idazle-ak erakusten du literaturak benetan balio duela, nolabaiteko kontsolamendua aurkitzeko ez ezik, baita bizitzaren misterioen gainean argi pixka bat egiteko ere.

Idazle handi baten begiradari esker, gure bizitzako kapitu-lu askok edo liburu onek bezala, minbiziak eman dezake bizimina.

IÑIGO FERNANDEZ

**IGLESIAS SARRAILAGILEAK**

**24 ORDUKO ZERBITZUA**

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiassarrailagileak@yahoo.es  
20810 ORIO

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

**Katu Horia**  
albatzaritza klinika

ESTROPALARI, 10  
20810 ORIO  
tel. 943 11 66 99

Larrialdia  
668 89 11 29

www.katuhoria.com

**PIZZERIA KALETA**

ARRANTZALE KALEA, 10  
TELEFONOA: 943 24 89 46

**KAUUA**  
taberna

Tipi-tapa, tipi-tapa, kaiuara bokata ederrak jatera

Anibarko portua 35, behea  
Tf.: 943 840 060





**Maidor Arrillaga Sarasola** · 138. Kol. zenb.  
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA



**GARMENDIA**  
INMOBILIARIA · AHOLKULARITZA · ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1  
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

**HAIZE BERRI**  
taberna-jateketa-kafeategia

Plater konbinatuak,  
bokatak,  
hanburgesak,  
raziok,  
aguneko menua...

**ostiraletan  
pintxo  
pote!**

eta etxera eramateko  
zerbitzua!  
**943 831 623**  
Orioko kiroldegian, Eribera 1

**ITZALA**

*kartetan jokatzeko  
aprosia*

tel. 943 83 12 59

**ITZIAR**  
kirolak

Tel. 943 83 31 03



**stt** SYSTEMS **BPXport**  
kirol zerbitzuak  
www.bpxtecnificacion.es

**Biomekanika 124€**  
Sistema STT berriarekin  
KARELA-ko bazkideek 105€  
Jar zaitez gurekin harenanetan:  
www.bpxtecnificacion.es

**PERTSIANAK**  
AKO MAZ

Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

Jaunartzeak 2016

**ROSANA**  
-ARGAZKI ESTUDIOA-  
fotorosanaarruti@gmail.com  
telf; 943 83 58 45



**ttipi**  
ttapa

943259695  
ttipittapa.oihane@gmail.com  
Eusko Gudarien,15 - 20810 Orio

**URAITZ**  
*lurrindegia*  
*jantzi-osagarriak*

Endaia,3 Tfnor 943 83 18 97


**PATXI OLIDEN**

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,  
txekorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

**karkara** eus

Garai Eskaintza berria Eskaria



**ASADOR XIXARIO** Eusko Gudarien Kalea, 2  
Tel. 943 830 019 - ORIO

**KOLON TXIKI**  
elarritegia  
jateketa

Herriko Eparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

**kutixi**  
kafategia  
GOSARI GOXOAK

Aritzaga 9, 20810 Orio  
Tf: 943 13 15 17



**INDO**  
Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagune, 4  
Tel. 943 894 024  
Fax. 943 130 144  
20809 AIA - ORIO





Elizako aldapan, bataioko txanponak jasotzeko lehiak haurrak. ITURRAIN

## 56an jaio ginenak, aurtan 60 urte

### Oroimenaren kutxa

1956an jaio eta 2016ra iritsi ez direnak gogoan, aurtan 60 urte beteko dituztenei begira ekarritako hitzak dira ondokoak, 1956koentzat. 1956ko otsailean hotz ikaragarria egin zuen, gauero izotzak jo zuen. Diotenez, hile hura izan zen XX. mendeko hilerik hotzena. Hotz izugarri harengatik gogoratzen dute urte hura, garai hura bizi izan zutenek.

1956an 69 haur jaio ziren Orion; beste horrenbeste, bataiatu. Egia esan, 68 izan ziren: Lurdes Dorransoro 1957/1/lean jaio zen, baina gurasoek abenduaren 31n erroldatu. Haur jaio berriengatik puntuak ematen zituzten, eta haien truke diru pixka bat. 69 ume haietako 16k aita arrantzalea zuten; 13k, baserritarra; beste 13k, arotza; amak etxeakoandre zituzten. Horiek ziren orduko lanbide zabalduenak. Hiru, guardia zibilen kuartel orain bota berrian jaio ziren. Haurrak etxean jaiotzen ziren, ia denak, ospitalera gabe. Don Jose Mariak bataiatu gintuen; 8 urterekin komunioa eman D. Victoriok.

Orioko zinea, Cine Leunda, gurekin jaio zen, 1956an –urtarrilak 31–. Moby Dick pelikula egin berriak estreinatu zuen; balearenak, nola ez! Urte hartan jaio zen telebisioa ere, TVE.

Oriora iristen, hala ere, urte asko tardatu zuen, 1960ko hamarkadan oso telebisio gutxi zegoen Orion. Kanal bakarrak 18:00etatik 23:00ak arte emititzen zuen, txuri-beltzean. El Fugitivo ezagutu genuen, eta El Virginiano, Bonanza eta Dibujos Animados. 1956an sortu zen El Capitan Trueno txistea ere. Orduan komikiei txiste esaten genien.

1956an lur jauzi handi bat gertatu zen Saikolan eta bukatu zen hango olaren 300 urteko historia eta Saikolaren gainbehera hasi. Han jaio zen Roke. Orioko kirolarentzat ere ez zen urte ona izan 1956: bigarren egin zuten Kontxan, San Juanen atzetik. Tira, oriotar batzuentzat, halere, hain txarra ere ez: Athletic-ek kopa irabazi zuen. Olinpiada urtea zen, Australiako Melbournen. Espainiak ez zuen parte hartu, sobietarren Hungariako inbasioagatik protestan.

1956an Orion ez zegoen kultur etxerik, ez kiroldegirik, ez musika eskolarik, ez frontoi estalirik, ez Ikastolarik ez Zaragoetarik. Soto batzuetan eskola batzuk, besterik ez, neskak eta mutilak aparte, jakina. Inorekin gelditu gabe ateratzen ginen kalera; orduan ez zen mobilik, etxeko telefonorik ere ez. Han, lagunekin elkartu, eta ez ginen etxeratzen kaleko argiak piztu arte. Jostatzen egun osoa: kuxkumekoka, txingoka, txapetan, kaniketan, kromotan, korrika, soka saltoan, baloiarekin, xibarekin, txanponak pirritaka botatzen... Txorro-morro-piko-tallo-ke esaten genion, batzuk paretaren kontra elkarren segidan makurtuta jarri eta gainerakoak haien gainean salto egitea zen jokoa.

1956koak, txikitan, automobilean lotu gabe joaten ginen, airbag-ik gabe; bizikletan, kaskorik gabe; gero motoan berdin. Gaztetan auto-stop egiten genuen. Eguzkia babesik gabe hartzen genuen. Kolunpioak metalezkoak ziren, herdoilduak eta ertz zorrotzekoak. Ausartenak Goiko Kaletik aldapan behera abiada bizian jaisten ziren gurditxotan; batzuk, kartoi edo egurretan. Frenorik gabe. Gehienak bizirik gaude!


Haurtzaroa eta gaztaroa itxoiten pasatu genuen. Bi ordu, bazkal ondoren, igeri egiteko, ez itotzeko. Jaunartzera joateko, goiz osoa ezer jan gabe. Unibertsitatera arte, ikasgelan neskak mutilekin batzeko. Gure gurasoek, zera hori egiteko, ezkondu arte. Zain gaztaroa ere, diktadorea noiz hilko.

1956an hil ziren Pio Baroja eta Bertolt Brecht. Ostegun santu egunean Juan Carlos Borboiak bere anai zaharra hil zuen tiro batez Donostian. Ezkondu ziren Arthur Miller eta Marilyn Monroe, eta Grace Kelly eta Monakoko Rainiero. Munduan, gerra piztu zen Suez itsasartean. Kubako iraultza hasi zen; 1956ko abenduaren 2an Kubako kostaldean Granma yatea lehorreratu zen 82 gizonekin, tartean Fidel eta Raul Castro eta Ernesto Che Guevara.

1956an jaiok dira Iñaki Perurena, Imanol Arias, Juanito Oartzabal, Estanis Argote, Sebastian Coe, Bjorn Borg, Ruper Ordorika, Isabel Pantoja, Migel Bose... Eta gu! Zorionak!



# Frontoi gunea eraberritu eta frontoi berria non eraiki erabaki



Goran udal teknikariak egindako aurreproiektua; behean, frontoiaren egungo itxura . KARKARA

Herriaren bihotzean, baina arnasarik gabe. Itota. Inguru degradatu eta ilunean kokatzen da, eta, adituen ustetan, hiri lurrean gaizki txertatuta dago. Frontoiko ingurua aldatzeko beharra ikusten dute, arnasa ematekoa.

## 2007etik aldatzekotan

Frontoiko zonaldea aldatzeko proposamena behin betikoz onartu zen 2007an, duela bederatzita urte. Arau subsidiarioek jasotzen dute onarpen hori, eta, 2012an behin betikoz onartutako Plan Orokorrak berresten du. Izan ere, planak, proposamen hori jasotzen du. Argazkiaren behealdean dagoen frontoia da egungoa, eta udaleko teknikariek eskuinaldeko aurreproiektua garatu dute, beharrezkoa jotzen duten haize hori bermatzen duena.

## Eraikinaren eraisteak presa dakar

Azaroaren 25ean, iluntzean, denboraleak eraginda, frontoi alboko –Eusko

Gudari 36– eraikineko teilatua hondoratu zen. Egoera arriskutsuan zegoela eta goiko bi solairuak bota zituzten biharamunean, goizean. Ondoren, eraikin guztia bota zuten, jabeekin horrela adostuta. Egun, beraz, ez dago eraikinik Eusko Gudari kaleko hogeita hamaseigarrenean.

Udal arkitektoak azaldu duenez, aldameneko eraikina ere egoera kaskarrean dago. Eraikin hori ere eraitsi egin behar da, beraz.

## Eztabaida: frontoia non?

Airean dago oraindik non joango den frontoia. Ez da zehaztu non kokatuko den. Baina, 2008an, Udalak, hondartzan frontoia kokatzeko aurreproiektua egin zuen. Eta ez soilik 2008an, dagoen tokitik atera eta hondartzara mugitzea baita Plan Orokorren planteamenduetako bat. Plan Orokorren baitan egin ziren bilera irekietan ikusi zen herritar asko asmo horren aurka

dagoela, eta frontoia herrigunean egoitea nahiko luketela, kiroldegi ondoan, esaterako.

Hori, ordea, ezinezkoa da. *Costasek* dagoeneko atzera bota du proiektu hori, legea urratzen baitu. Hortaz, aurreproiektuak landuta eta aukerak aztertuta dauden arren, ez dago erabakita non egingo den frontoia.

## Kirolgunea hondartzan

Frontoia akaso ez, baina kirolgunea egon behar du, bai ala bai, hondartzan. Izan ere, 2003an onartutako Hondartzako Plan Partzialak, Zaragueta ondoan kirolgune bat aurreikusten du. Esan bezala, kirolguneak ez du zertan frontoia izan behar. 2008an han kokatu zuten arren, erabakitzeko dago.

Dena den, kirolgunea ere gauzatu gabe dago oraindik. Hortaz, guztia dago egiteke: frontoiko zonaldea biziberritzea, frontoi berria eta hondartzako kirolgunea.



### EAJ EAJ Azpieremua - frontoia

Frontoia egoera kaskarrean aurkitzen da eta eremu horretako azpiegituraren kalitatea hobetzeko beharra du. Udalak hainbat hirigintza plan onartu ditu frontoiaren inguruan, 2003an, 2007an, 2008an eta 2012an. Plangintza horietan frontoiaren kokalekua aldatzeko proposamena jasotzen da, eta gaur egun frontoia dagoen gunean, 32 etxebizitza izatea, frontoi txiki estali bat eta 60 aparkaleku sortzea aurreikusten da. Ildo beretik, bertako jabe guztien akordioa duen proiektu bat ere badago. Plangintza horietan, Zaragueta ondoan, kirolgunek bat aurreikusten da, non frontoi berriaz gain, beste hainbat instalazio izango dituen. Hau litzateke irtenbide errazena, lurzorua jabetza udalarena izanik, eremua garatzean kostuak murriztuko baitira. Beste kokalekuren batean jartzeak kostuak igoko lituzke eta bukaerarako milioitik gorako kostua izango luke. Hondartzako zonaldean frontoi berri bat egitearen eta egungo kokalekuan frontoi txikiago bat egitearen alde gaude.



### Orain

#### Frontoiaren eremuan zer?

Frontoi ingurua erdigunean dagoen eremu degradatua da, berritzeko premian dagoena eta, frontoia dagoen espazioan utzita, ezingo dena eraberritu. Eremua berrantolatzeke 3 aukera planteatu dira: gaur egun onartuta dagoena -30 etxebizitza, frontoia eta 60 garaje-, etxebizitza gehiagorekin eta frontoirik gabe. Eta orain galdera nagusia: jakinda ez dela bakarrik pilotan jokatzeko erabiltzen, era askotako ekitaldiak ere egiten direla, non kokatu frontoi berria? Bi aukera planteatzen dira: Zaragueta eskola ondoan edo Palotak eremuko Kosta Tailerraren aldamenen. Non mantentzen dira hobeto gaur egungo erabilera guztiak? Dirudienez udaletxeko talde politikoei herria kontsultatzeko asmoa dute. Aukeren informazioa ondo zabaldu ondoren erabakia herritarrok hartu behar dugu, erabakia arduraz hartuz frontoia herriaren eta gure erabilerrako egingo delako.



### EH Bildu

#### Zer eta nola erabaki

Erdigunean dago eta bertako egoera asko hobetu daiteke. Mahai gainean hiru proposamen ditugu; eraikigarritasun bolumena, gune librean zer egin -frontoi estali txiki bat edo parke estalia-, eta frontoi berriaren kokapena non? Aldagai guzti hauen artean dago erabakiaren gakoa. Frontoiaren kokapen berriak berebiziko garrantzia du, gaur egun hondartzan inguruan dago aurreikusia eta gure ustez herri gunean beharko luke. Kosta tailerraren aldamenen egitea izan da gure proposamena, baditu bere arazoak baina 2030 begirako Orio batez ari gara hitz egiten, eta frontoiaren kokapena estrategikoa izango da etorkizunari begira. Nola erabakitzean dago, baita ere, beste gakoetako bat, hau guztia Plan Orokorren hasieran burutu zen eredu parte hartzailean jarraituz egitea eskatzen dugu, eta horrelako gaietan oriotarren iritzia kontuan izateko herri kontsulta baten premia ere ikusten dugu.



### PSE-EE

#### Herritarrei galdetu

Pilotalekuaren ondoko etxea eraitsi ondoren, nabarmena da ingurua itxuratzeke berehala egin behar dela zerbait. HAPOn Aurrerapenak hiru aukera aurreikusten ditu. Hiruetan etxebizitzak egingo dira -gehiago edo gutxiago-, eta bi aukeretan, bestalde, pilotaleku estali txiki bat ere bai. Hala ere, erabakia hartzeko zailtasunik handiena da erabakitzea non kokatu pilotaleku berria. Ez dago aukera asko. Bat Abaromendi inguruan eraikitzea da; han Udalak lurra dituzte eta, beraz, merkeago aterako litzaioke. Bigarrena herrigunean eraikitzea da; horretarako, Udalak lurra erosi beharko lituzke eta, beraz, gastu hori gehituko litzaioke eraikuntzarenari. Zein da aukerarik onena? Gure ustez, erabakia hartzeko, Udalak kontuan hartu behar du ea kostu ekonomikoa asumitzeko modukoa den; kontuan hartu behar du, baita ere, oriotarren iritzia eta berriz galdetu beharko lieke, proiektuari buruzko informazio guztia emanda.



# URTEAN 36 EURO

18 DOZENA ARRAUTZ

12 KILO PATATA

950 GRAMO BIXIGU

40 LITRO ESNE

EDO

## KARKARAKO HARPIDETZA

+ POLTSA OPARI

**HARPIDETU**

KARKARA.EUS/HARPIDETZA

KARKARA@KARKARA.COM

943 831027

Izena:

Abizenak:

Nortasun agiria:

Helbidea:

Telefonoa:

Eposta:

Kontu zenbakia:

**Bete formularioa  
eta erredakziora ekarri  
edo [karkara.eus/harpidetza](http://karkara.eus/harpidetza)  
helbideko formularioa bete**

## ■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

## Irteera Donostiara!



Urtarrilaren 29an goizeko 10:00etan Donostiara goaz 4.maila, 5.maila eta 6. maila Victoria Eugeniara Kukai konpainia ikustera. Antzerkiak ordu-bete iraungo du eta gero paseotxo bat emango dugu eguraldiaren arabera. Eguerdian, bazkaldu egingo dugu. Bazkaldu ondoren 13:45ak aldera, Txuri Urdinera joango gara. Han patinekin ibiliko gara eta 15:15etan autobusa hartuko dugu eskolara etortzeko. Espero dugu ondo pasatzea!

## ■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

## Begiei nola ikusi erakusten!



Lehen goan gure gelako Mararen amaxo etorri zen. Optiko optometrista eta begien hezitzailea da. Begiei nola ikusi behar duten erakusten jarduten da eta gu ere horretan aritu ginen; burmuinari erakutsi egin behar baitzaio begiek nola funtzionatzen duten! Miopia, astigmatismoa eta horrelakoak ez azaltzeko jolasak egiten aritu ginen. Ez dakigu gure begiek zerbait ikasi zuten, baina guk behintzat primeran pasa genuen! Eskerririk asko Oneka!

## ■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA

## Oriotar musikari mundialak



Eskolako Kultur batzordeak antolatu duen musika emanaldia dela eta ikasle ohi mordoia izan dugu gure artean. Aldez aurretik adostutako abestiak landu ditugu eta haiek etortzerako prest izan gara. Eskolako ateak denbora luzez zeharkatu gabe zeuden bai, baina gogotsu etorri dira berriro beren gitarrak, klarineteak... besapean hartuta. Eskola guztia dantzan jartzea lortu dute. Momentu politak igaro ditugu berekin eta lortu dugun emaitza paregabea izan da.



Anartz Agote San Sebastian

## Euskal eskola publikoa

**G**aur egun eztabaida handia sortzen duen gaia dugu honako hau. Izan ere, askoren ustez, eskola pribatuak publikoak baino abantaila gehiago ditu, alegia, prestigio handiagoa du gure gizartean. Nire ustez, ordea, ez dago hori esateko pisuzko arrazoirik, badakizue, askotan itxura gauza bat dela eta errealitatea guztiz bestelakoa, esatera zaharrak dionez *usteak beti erdi ustel*.

Hasteko, gure aitona-amonen garaian, adibidez, gehien goak ez zuen ikasketak ordaintzeko adina diru izaten, beraz, lan mundura zuzentzen ziren gazte-gazterik.

Honen ondorioz, esan genezake hezkuntza ez zegoela guztiz bermaturik. Eskola publikoari esker, ordea, familia txiroei ikasketak edukitzeko aukera ematen zaie. Honi lotuta, eskola publikoan leku ezberdinetako jendea topatzeak, eskola desprestigiatu beharrean, aberastu egiten duelakoan nago, honek kultura ezberdina ikasi eta kanpokoekin elkarbizitza lantzeko aukera ematen baitigu.

Bestalde, edozein eskolaren kalitatea ez da neurtzen ordaintzen dugun diruaz, irakasleen jarrera eta ikasteko metodologiekina baizik; hau da, asko ordaintzeak ez du esan nahi jaso behar dugun hezkuntza hobea izango denik.

Laburbilduz *urrutiko intxaur ondoak hamalau, gerturatu orduko lau* dioenez, askotan gauzak ez diren bezala saltzen dizkigute.





## Gizartea

### Arenas Aizpurua S.L hustu eta itxi egingo dute

2015eko azaroan eman genuen notizia: *Ibaiko draga lanak gelditu-ta daude, momentuz. Arenas Aizpurua S.Lk 1999tik zuen baimena ez dio berritu Eusko Jaurlaritzak. Errekurtsoa aurkeztu du enpresak, baina epaia eman arte ezingo du jarduerarekin jarraitu.*


Eta epaia eman dute dagoeneko. Arenas Aizpurua S.Lk jarritako 704/2014 errekurtsioa atzera bota dute eta hilabeteko tartea eman zaie joanateko. Sententzia irmoa da, hau da, ezin da errekurtsioa jarri. Behin betikoa da. Soberakinen eta instalakuntzaren mantenua Portuko Autoritateari itzultzea adostu da, kargurik gabe.

@karkara.eus/orio/1452693684795



## HASI TXIOKA

### Inauterietan txiokatu #inauteriakOrio traola erabilia!



## Gizartea

**Urrezko Bikain ziuertagiria jaso du KARKARAK**  
Gasteizen izan zen Bikain ziuertagiriaren sari banaketa, abenduaren 21ean. Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburua eta Ramon Larrañaga Confebasko presidentea izan ziren sari banaketan. Sari banaketan izan ez ginen arren, KARKARAK Urrezko Bikain ziuertagiria jaso du. Ziuertagiria jaso ahal izateko, aurrez ebaluatu egiten dute erakundea edo enpresa.

## Kultura

### Aurten ere, eskolaumeen literatur lehiaketa

Aurtengo edizioa aurreratzea erabaki dute Udalak eta bi ikastetxeek, eta martxoaren 11 baino lehenago aurkeztu beharko dituzte beren lanak parte-hartzailerek. Herriko bi ikastetxeetako zuzendaritzetan edo Udalaren Euskara Zerbitzuan egin dezakete. Sari banaketa apirilaren 23an, liburuaren egunean, egingo da. LH3tik DBH4ra bitarteko haur eta gaztetxoei dago zuzendua lehiaketa eta bi atal ditu: alde batetik, ipuin eta olerki lehiaketa eta, bestetik, marrazki lehiaketa.

## Kirola

### Brontzezko domina hiru oriotarrentzat

Espainiako Eskubaloi Txapelketan izan ziren hiru oriotar: Maria Zaldúa eta Laida Urbitarte Orioko Ikastolako taldeko jokalariek eta, Garikoitz Garagarza, entrenatzailea. Finalerdietan Valentziaren aurka galdu egin zuten, hori izan zen txapelketako lehen eta azken porrota. Izan ere, ondoren, hirugarren postuaren aldeko lehiako partidari irabazi egin zuten, Asturias. 18-12 irabazi zuten.



## Ingurumena Udalak Mutiozabal ontziola erosiko eta biziberrituko du

Denis Itxasok, Aldundiko Kulturako diputatuak, eta Joxe Anjel Zalduak, Orioko Alkateak, Udalak Mutiozabal ontziola erosteko hitzarmena sinatu zuten atzo, urtarrilaren 26an. Erosketa egiteko, 47.981 euroko diru-laguntza emango dio Aldundiak Udalari. Ondarea berreskuratzeaz gain, ontziolak erakargarritasun turistikoa ere baduela esan zuten. Horrez gain, kostaldean zehar dauden horrelako zentroak batzen dituen sarea egitea interesgarria litzatekeela esan zuten.

@karkara.eus/orio/1453801927760



## Gizartea Aldi baterako Kanpineko Zuzendaria hartuko du Udalak

Udal kanpinerako zuzendari postua aldi baterako betetzeko lehiaketa publikoa irekiko du Orioko Udalak. Lanaldia 2016ko martxoaren 1etik lanpostua oposizio-lehiaketa irekiaren bidez betetzen den artekoa izango da. Aldi baterako lanpostua betetzeko lehiaketa publikoa egingo du udalak, eta lanaldi osorako kontratua izango du hautatuak. Lehiaketarako izen-emate epea urtarrilaren 25ean zabalduko dute eta otsailaren 10era arte egongo da irekita.

@karkara.eus/orio/1453471667300

## Bodyboarda, olatutik airean ateratzearen xarma



@karkara.eus/orio/  
1453729837250



## San Sebastian eguna ospatu zuten Orioko Ikastolan



@karkara.eus/orio/  
1453377412224



## Zaraguetan ere tanborrada jo zuten Sansebastianetan



@karkara.eus/orio/  
1453300131894





**AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Salgai**

■ **Pisua salgai** Aristerrazu-Aian. 70 metro karratu, ia berria. bi logela, komuna, egongela handia eta sukalde handia. Gara-jea eta trasteroa barne. 129.000 euro. Tf: 628 271 211

■ **Salarako altzaria**, gereziondoaren egurrarekin egindako liburutegia. Neurriak 221,5 x 243,5 x 37,5 dira. Prezioa negoziagarria da. Harremanetan jartzeko deitu 649289154 telefonora.

■ **Intxaurrak:** Tamaina oneko Aiako intxaurrak. 3k14€. 4k18€. 5k20€. Pati deitu urtarrilaren 28tik aurrera: 943132131 edo 634424887

**Alokairuan**

■ **Apartamentua** alokagai Orio erdigunean. Altzariz jantzita dago apartamentua eta kontratuak urte batekoa edo gehiagokoa izan beharko du. Tf: 648614769 - Juli-.

■ **Lur azpiko garaje-linea** alokairuan, Orion, Kaia kalean. Prezioa: 65 euro. Tf: 675711267 - Beñat-  
 ■ **Pisu dotorea** alokagai Orio erdi erdian. Bikote batentzat paregabea. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna, 65 metro karratu inguru. Telefonoa: 665713857

■ **Goiko kalen pisua** alokagai, 75 metro. Guztiz berritua, hornitua, bista zoragarriekin eta oso ar-

gitsua. Hiru logela ditu, sukalde-sala eta komuna. 3.pisua aszentzorerik gabe. Urritik aurrera alokagai, prezio onean. Miren 675 701 766

■ **Pisua alokagai** epe luze-rako. 3 logela eta komun bat 1. 83metro karratu, berritua eta estreinatzeko. Tf: 617 602 117 -Nekane-  
 ■ **Logela alokagai** -16 metro- etxebizitza berrian. Komun propioa gelatik kanpo eta 40 metroko

**Lan eskariak**

■ **Arratsaldetan** lana egiteko prest, bereziki edadetuen zaintzan. Emakumea, euskalduna eta oriotarra. 14 urteko esperientzia alor honetan. Mari: 664834388

■ **Asteburuetarako** lan bila dagoen emakumea. Esperientzia helduen zaintzan, baina edozein lan egiteko prest. Paperak ere badituz. Tf: 663117579

■ **Gizonezkoa** prest base-rrian lan egiteko. Esperientzia daukat. Jose Azur. Tf: 674 123 293  
 ■ **Garbiketa** lanak egiteko, zahar nahiz helduen zaintza eta etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume gaztea. Tf: 636 188 388 -Mayerling-.

■ **Lan bila** dabilen emakumea. Sukaldari titulua daukat, eta esperientzia jangelan eta zerbitzari lanetan; baita hurren zain-

tzan eta garbiketan. Intere-  
 resa duenak 695 914 242 zenbakira deitu dezala.

■ **Lan bila** nabil ume nahiz zaharrak zaintzen edo garbiketan -barnekoa edo kanpokoa-. Intere-  
 resa duenak deitu telefono honetara: 634 920 471 -Maria Jose-  
 ■ **Esperientzia** daukat heldu nahiz hurren zaintzan eta garbiketa lanetan. Azkenengooz baserri batean egin dut lan, hiru urtez. Tf: 674123293 -Claudia Patricia Gimenez-

■ **Ikasketaz** ingeniari mekanikoa eta 30 urteko esperientzia soldadore lanetan. Gaztelera, Ukrainera, Errusiarra eta Polakoa hitz egiten dituz. Langilea naiz eta lan bila nabil. 674 946 663 edo 602 628 206 -Bohdan-  
 ■ **Asteburuetako** lan bila pertsona helduen zaintzan. Paperak araututa eta erreferentziekin. 663117579

■ **Bertako** emakumea lan bila. Portal eta ofizinen garbiketan esperientzia, adinekoen zaintzan titulua. Tf: 617112916

**Elkarbanatzeko**

■ **Lanerako** bulego handia daukagu, Orion, eta elkarbanatu egin nahiko genuke freelance edo etxetik lan egiten duen jendearekin. Tf: 656309237 -Imanol-

**ITSASOIA**

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	09:47 eta 22:25	03:33 eta 16:06	
02	10:57 eta 23:41	04:38 eta 17:14	
03	12:15 eta ____	05:51 eta 18:24	
04	00:54 eta 13:25	07:01 eta 19:26	
05	01:53 eta 14:20	07:59 eta 20:19	
06	02:42 eta 15:06	08:48 eta 21:05	
07	03:25 eta 15:48	09:32 eta 21:47	
08	04:06 eta 16:29	10:14 eta 22:28	
09	04:46 eta 17:09	10:55 eta 23:10	
10	05:27 eta 17:50	11:37 eta 23:52	
11	06:09 eta 18:33	12:20 eta ____	
12	06:53 eta 19:18	00:35 eta 13:04	
13	07:40 eta 20:07	01:22 eta 13:52	
14	08:33 eta 21:03	02:13 eta 14:46	
15	09:34 eta 22:11	03:11 eta 15:47	
16	10:51 eta 23:32	04:21 eta 17:00	
17	12:17 eta ____	05:42 eta 18:19	
18	00:54 eta 13:34	07:03 eta 19:32	
19	02:02 eta 14:35	08:10 eta 20:30	
20	02:56 eta 15:24	09:02 eta 21:17	
21	03:40 eta 16:04	09:45 eta 21:57	
22	04:19 eta 16:39	10:23 eta 22:33	
23	04:53 eta 17:12	10:57 eta 23:07	
24	05:25 eta 17:43	11:30 eta 23:40	
25	05:56 eta 18:13	12:02 eta ____	
26	06:27 eta 18:44	00:13 eta 12:34	
27	06:59 eta 19:16	00:47 eta 13:07	
28	07:32 eta 19:51	01:22 eta 13:43	
29	08:09 eta 20:32	02:01 eta 14:24	

**ZAINTZAKO BOTIKAK**

**URTARRILA**

- 1ean, Mutiozabal
- 2 eta 3, Azaldeg
- 4an, Larrañaga
- 5ean, Mutiozabal
- 6an, Etxeberria
- 7an, G. Artiñano
- 8an, Azaldeg
- 9 eta 10, Zulaika
- 11n, Mutiozabal
- 12an, Etxeberria
- 13an, G. Artiñano
- 14an, Azaldeg
- 15ean, Zulaika
- 16 eta 17, Iriarte
- 18an, Etxeberria
- 19an, Larrañaga
- 20an, Lasa
- 21ean, Zulaika
- 22an, Iriarte
- 23 eta 24, Larrañaga
- 25etaik 29ra, Lasa
- 30 eta 31, Mutiozabal

- **Azaldeg**: Urdaneta kalea, 8. 943133183 Zarautz
- **Etxeberria**: Gipuzkoa kalea, 17. 943832398 Zarautz
- **Mutiozabal**: Kale Nagusia, 12. 943832970 Zarautz
- **Larrañaga**: S. Frantzisko, 16. 943133814 Zarautz
- **Lasa**: Herriko plaza. 943830936 Orio
- **G. Artiñano**: Zigordia kalea, 17. 943134019 Zarautz
- **Iriarte**: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943132983 Zarautz
- **Zulaika**: Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz



## Kalejira eta kontzertua

Otsailaren 6an, larubatarekin, Inauteriak ospatuko dira Orion. Azken urteetan egin den moduan, aurten ere kalejira egingo da, Bikamiotan hasita. Mozorrotuta joan beharko da Talai Mendi Txarangarekin dantzan aritzeko, baita, ondoren, Ezten Giro taldearekin, Karelan, erromerian oinak astintzeko ere.

### AGENDA

## Aia

### Belar-bola plastikoen bilketa

■ Otsailaren 9an, Belar-bolako plastikoen bilketa zerbitzua.

### Erromeria

■ Urtarrilaren 31n, Imanol Intxausti eta Unai bikotekidearekin erromeria, Aristerrazuko plazan, 18:30etatik 21:30etara.

### Bilera

■ Otsailaren 12an, Santio Jaiak antolatzeko bilera irekia, Portu erretegian, 22:00etan.

## Orio

### Inauteriak

■ Otsailaren 6an, 17:00etan Bikamiotan hasi eta plazaraino desfilea, Talai Mendi txarangarekin. Eguraldi txarra eginez gero, Bikamiotatik Karelara izango da desfilea. Ondoren, Ezten Giro musika taldearen kontzertua Karelan.

### Kontzertuak

■ Otsailaren 26an, 4NEK taldea, Orioko kultur etxean, 22:30ean.

### Bingoa

■ Asteazkenero, Bingoa, kultur etxean, 16:00etatik aurrera.

### Ipuin Kontalaria

■ Otsailaren 15ean, Judith Huegun ipuin kontalaria, liburutegian, 18:15ean.

### XXII. jaitsiera, IV. Babyauto Bandera

■ Otsailaren 27an, Orian, 17:00etan.



# Begiak itxita, ikastola

- konfiantzan -

 Orioko  
Herri  
Ikastola  
Herri Onurako Kooperatiba

Matrikulazioa:  
Urtarrilaren 25etik Otsailaren 5era



**GURASOENTZAT INFORMAZIO BILERA** urtarrilak 21, osteguna, Batzar Aretoan; 17:00etan euskaraz, eta 18:30ean, gaztelaniaz  
**ATEAK IREKITAKO EGUNA** Urtarrilak 21, osteguna, 17:00etatik aurrera | Urtarrilak 23, larunbata, goizeko 10:00etatik aurrera

Bulego ordutegia: 08:30-13:30 / 14:30-18:30 · Tel. 943 834 704 / 943 894 360  
e-posta: [orio@ikastola.eus](mailto:orio@ikastola.eus) [www.oriokoikastola.eus](http://www.oriokoikastola.eus)

 Ikastolen  
Elkartea

 OTEITZA  
LEZEO POLITEKNIKOA